

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

VITORIA-GASTEIZKO UDALA

ENPLEGUAREN ETA GARAPEN EKONOMIKO IRAUNKORRAREN SAILA

Gasteizko udal-mugartean merkataritzaren eta zerbitzu pertsonalen arloetako enpresa txikiak ezartzeko eta modernizatzeko laguntza ekonomikoak emateko udal-programa arautuko duten oinarriak eta 2019ko haren deialdi publikoa

2018ko abenduaren 28an, Tokiko Gobernu Batzarrak onetsi zituen Gasteizko Udalaren 2019ko dirulaguntzen deialdiak arautuko dituzten oinarri orokorrak, eta horien 2. atalean zehazten dira aurreikusitako dirulaguntza-eremu eta -lerroak; horien artean, besteak beste, Udalaren merkataritza-zerbitzuan, 23. lerroa dago, "Gasteizko udal-mugartean merkataritzaren eta zerbitzu pertsonalen arloetako enpresa txikiak ezartzeko eta modernizatzeko 2019ko laguntzak" izenekoa. 2019ko otsailaren 13ko ALHAOn (19. zk.) argitaratu ziren oinarri orokor horiek, eta Udalaren webgunean kontsulta daitezke (www.vitoria-gasteiz.org), baita herritarrei laguntzeko bulegoetan ere.

2019ko martxoaren 29an egindako bilkuran Tokiko Gobernu Batzarrak onetsi zituen Gasteizko udal-mugartean merkataritzaren eta zerbitzu pertsonalen arloetako enpresa txikiak ezartzeko eta modernizatzeko laguntza ekonomikoak emateko udal-programa arautuko duten oinarri espezifikoak eta 2019ko haren deialdi publikoa. Horrenbestez, oinarri horiek argitara ematen dira, herritarrek jakinaren gainean egon daitezzen:

1. oinarria. Dirulaguntza-lerroa

Merkataritzaren eta zerbitzu pertsonalen arloetako enpresa txikiak ezartzeko eta modernizatzeko laguntzak.

2. oinarria. Deialdiaren xedea

Gasteizko udal-mugartean kokatutako txikizkako merkataritzaren eta zerbitzu pertsonalen arloetako enpresa txikiak ezartzeko, eraberritzeko eta modernizatzeko laguntza ekonomikoak norgehiagoka bidez emateko baldintzak arautzea dute xede oinarri hauek.

Itzuli beharrik gabeko dirulaguntzak izango dira laguntza ekonomiko horiek.

3. oinarria. Enpresa edo pertsona onuradunen betekizunak

Merkataritza-jardueraren bat duten pertsona fisiko nahiz juridikoak izan ahal izango dira oinarri hauetan arautzen diren laguntzen onuradun, baldintza hauek betetzen badituzte:

1. 50 langile baino gutxiago izatea.
2. 10 milioi euro baino gehiagokoa ez izatea urteko negozio-bolumena edo balantze orokorra.
3. Aurreko betekizunak betetzen ez dituzten enpresek ehuneko 25etik gorako partaidetza edo lotura ez izatea bertan.
4. Ekonomia Jardueren gaineko Zergan alta emanda egon beharko du enpresak, eta eskabi-dean adierazten den lokalean merkataritza-jarduera eduki, dirulaguntza eskatzen duen unetik aurrera, behintzat.

Enpresaren jarduera nagusia Ekonomia Jardueren gaineko Zergaren multzo edo epigrafe hauetakoren batekoa izatea:

64: Establezimendu iraunkorretan egiten den jangaien, edarien eta tabakoaren txikizkako merkataritza (salbuespenak: 646: Tabako-laboreak eta erretzaileentzako artikulak txikizka saltzea; eta 647.5: elikagaiez eta edariez —tabakoa izan ezik— makina automatikoen bitartez hornitzea).

65: Establezimendu iraunkorretan eginiko produktu industrial elikadurarakoez bestekoen txikizkako merkataritza (salbuespenak: 652.1: farmaziak: sendagaien eta osasun eta higiene pertsonalerako gaien txikizkako merkataritza; 654.3: Aireko ibilgailuena; 654.4: ibai eta itsasoko ibilgailuena; 654.5: makineriarena; 654.6: mota guztietako ibilgailuetarako gurpil-azalen, banden edo aire-ganberena, eta 655: erregaien eta lubrikatzaileen txikizkako merkataritza).

662.2: Era guztietako salgaien txikizkako merkataritza.

691.1: Etxerako artikulua elektrikoen konponketa.

691.9: Kontsumoko beste ondasun batzuen konponketa, BISG (beste inon sartu gabeak).

755: Bidaia agentziak (755.1 izan ezik).

971.3: Arropak pasaratzea eta konpontzea.

972: Ile-apaindegiko eta edertasuneko zerbitzuak.

5. Ekonomia Jardueren gaineko Zergaren bi epigrafe edo gehiagotan alta emanda badago enpresa, onuraduntzat joko da baldin eta jarduera nagusia diruz lagundu daitezkeen multzo edo epigrafe baten barruan badago eta egiten dituen ekintzak jarduera horri badagozkio. Jarduera nagusia zehazteko, horretarako erabiltzen den azalera erabilgarria hartuko da aintzat.

Aurreko paragrafoan adierazitakoa gorabehera, inolaz ere ez da diruz lagunduko merkataritza lokalean Ekonomi Jardueren gaineko Zergaren 761. epigrafean jasotako jarduerarik gauzatzen duen enpresarik.

6. Gasteizko udal-mugartean kokatuta egon beharko du negozioaren lokalak (menpeko toki-erakundeak barne), industrialdeetan izan ezik. Ez da beharrezkoa izango eskabidea egiten duten pertsona edo enpresek helbidea Gasteizko udal-mugartean edukitzea.

Negoziaren kokalekua II. eranskinean zehazteari dagokionez, lokal jakin bat eranskinean zehaztutako muga barruan dagoela ulertuko da baldin eta establezimenduaren sarrera edo erakusleihen zatirik handiena hala badago.

7. Sestra-lerroan kokatuta egon beharko du lokalak; erakusleioa izan behar du, eta jende ororentzat izan. Hornidura-azoketan edo merkataritza-zentro edo -galerietan txertatuta dauden establezimenduak ere aintzat hartu ahal izango dira. Ez dira finantzatuko gasolina-zerbitzugu-neetan kokatutako establezimenduak.

8. Betebehar fiskalak, Gizarte Segurantzarekikoak eta Gasteizko Udalarekikoak beteta edukitzea. Eskabidea aurkezten denean ez ezik, dirulaguntzaren prozesu osoan ere bete beharko da betebehar hori (dirulaguntza ematen, obligazioa onartzen nahiz ordaintzen denean).

9. Indarrean dagoen araudia zorrotz bete beharko dute enpresa eskatzaileek, hirigintzari eta arkitekturari dagokiena nahiz osasun eta higienerari dagokiona. Ofizios egiaztatuko da enpresa eskatzaileak arauzko obra-baimena duen, edo, bestela, behar bezala izapidetu duen dagokion erantzukizunpeko aitortpena.

10. Nolanahi ere, baztertuta geratzen dira sozietate publikoak eta zuzenbide publikoko entitateak, baita irabazi-asmorik gabeko entitateak eta elkarte- edo lanbide-jarduerak egiten dituztenak ere (elkarteak, lanbide-elkargoak eta abar).

11. 2018ko deialdian lokal beragatik lerro honetako laguntzarik jaso gabea izan beharko du eskabidea egiten duen enpresak.

4. oinarria. Dirulaguntza jaso dezaketen ekintzak

Dirulaguntzaren xede den lokalean 2018ko ekainaren 22tik 2019ko ekainaren 6ra bitartean egiten diren inbertsio-proiektuek jaso ditzakete dirulaguntzak.

Behar bezala jaulkitako fakturen bitartez egiaztatu beharko dira egindako inbertsioak, gorago adierazitako datetan. Enpresek ordainagirien bidez egiaztatu beharko dute ordaindu dituztela (ikus 15. oinarria), eta behar bezala aurkeztu beharko dituzte Gasteizko Udalean, bi hilabeteko epean, eskabideak aurkezteko epea amaitzen den egunetik. Gorago adierazitako epean fakturen ordainagirien bidez (osokoak zein partzialak) ordainduta dagoela ondo egiaztatuta geratu den zenbatekoa baino ezin izango da lagundu diruz, nahiz eta fakturan kostu handiagoa jasota egon.

Laguntza-lerro horretan, jarduketa hauetarako jaso ahal izango da dirulaguntza:

– Merkataritza-lokala eraberritzeko obrak: merkataritza-lokala egokitu, berritu edo handitzeko egiten diren obrak oro. Atal honetan dirulaguntza jaso dezaketen jarduerak baloratzeko orduan, obra-lizentziaren eskabidearekin batera aurkeztutako dokumentazioa hartuko da kontuan, edo azken likidaziorako aurkeztutakoa.

– Merkataritza-lokalaren hornikuntza: aktibo finko berriko elementu hauetan egindako inbertsioak:

Jarduera nagusiarekin zuzeneko zerikusia duen makineria.

Merkataritza-altzariak.

Errotuluak, oihalak eta pertsianak.

Ekipo informatikoa eta kudeaketa-software informatikoa.

Lokala klimatizatze tresneria.

Produktuei atxikita ez dauden segurtasun-ekipoak.

Erosten diren egunetik (fakturan ageri den datatik) aktibo horiek gutxienez bi urtez eduki beharko dira enpresan.

– Jarduera abian jartzeko edo merkataritza-establezimendua eraberritzeko aurreproiektu edo proiektu teknikoak kontratatzea.

Diruz lagundu daitekeen jarduerak establezimenduan izango duen metro koadro erabilgarri bakoitzeko gutxienez 120,00 eurokoa izan beharko du diruz lagundu daitekeen inbertsioak. Dena den, inoiz ez da 18.000,00 eurotik gorakoa izango proiektua diruz lagundu daitekeela irizteko eskatzen den gutxienerako inbertsioa.

Jarduera edo eraberritze proiektu teknikoan ageri den azalera erabilgarria aintzat hartuta zehaztuko da diruz lagundu daitekeen jarduerak izango duen azalera erabilgarria, biltegia eta komunak alde batera utzita. Lokalean jarduera bat baino gehiago egiten badira (batzuk diruz lagundu daitezkeenak eta besteak ez), zuzenean diruz lagundu ezin diren jarduera horiei egotzi beharrekoak kendu egingo dira aurreko azaleratik. Jarduera- edo eraberritze-proiektu teknikorik aurkezten ez bada, diruz lagundu daitezkeen jarduerari dagokien Ekonomi Jardueren gaineko Zergan adierazten den azalera kontuan hartuko da, biltegirako azalera alde batera utzita, datu hori ageri bada.

5. oinarria. Honako hauetarako ez da dirulaguntzarik emango:

– Erakusteko eta probetarako artikulua, eta gerora salgai jar daitezkeen artikulua.

– Garraio-kostuak, aseguruak, administrazioaren baimen, lizentzia eta antzekoengatik ordaindu beharreko tasak, edo bestelako zergak.

– Garraio-elementuak, telebistak edo telefono-terminalak erostea.

- Lokala erostea, eskualdatze-eskubideak, alokairu-errentak, eta frankizietan sartzeko kanonak.
- Mantentze- eta konpontze-gastuak edo piezak aldatzeko gastuak.
- Bulegoko materialari, tresnei eta antzekoei dagozkien gastuak.
- Finantza-errentamendu edo antzeko formulen bidez egindako inbertsioak.
- Ale bakoitzeko zenbateko garbia 50,00 eurotik beherakoa den edozein aktibo edo material erostea.
- “Merkataritza-lokalaren ekipamendua” zerrendan dirulaguntzari egotz dakioken gastu gisa esanbidez ageri ez den beste edozein aktibo erostea.
- Diruz lagundu daitekeen edozein kontzeptu, baldin eta hornitzaileak dirulaguntza eskatzen duen enpresarekin lotura badu. “Lotura duen enpresa” kontzeptuari dagokionez, Sozietateen gaineko Zergaren abenduaren 13ko 37/2013 Foru Arauaren 42.3 artikuluko definizioa erabiliko da.

6. oinarria. Baliabide ekonomikoak

2019ko ekitaldiko udal-aurrekontuetako 2019/08 22 4314.489.64 “Denda txikientzako laguntzak” partidaren kontura finantzatuko dira deialdi honetan aurreikusten diren dirulaguntzak. 200.000,00 eurokoa da partidaren zuzkidura.

Zuzkidura hori handitu ahal izango da, baldin eta Enpleguaren eta Garapen Ekonomiko Iraunkorraren Saileko zinegotzi ordezkariak horretarako erabakia ematen badun eta udal-sail horrek kudeatzen duen (eta partida ekonomiko beraren menpe dagoen) “Gasteizko udalerrian ostalaritzatan arloko enpresa txikiak ezarri eta modernizatzeko 2019ko laguntzak” deialdian soberako krediturik badago.

7. oinarria. Indarrean jartzea eta eskabideak aurkeztea

ALHAOn argitaratzen diren egunaren biharamunean jarriko dira indarrean oinarri hauek (aldez aurretik Dirulaguntzen Datu-base Nazionalean laburpen-iragarkia argitaratuko da).

Eskabideak aurkezteko epea 2019ko maiatzaren 6an hasiko da, eta ekainaren 6an bukatuko.

Deialdi honetako 3. oinarrian adierazitako betekizunak betetzen dituen entitate onuradunak laguntza-eskabide bana aurkeztu beharko du modernizatzeko edo egokitze-lanak egin dituen lokaletako bakoitzeko. Lokal bakoitzeko laguntza bakarra eskatu ahal izango da urtean.

8. oinarria. Dirulaguntza emateko prozedura

Enpleguaren eta Garapen Ekonomiko Iraunkorraren Sailari dagokio oinarri hauetan arautzen diren laguntzak kudeatzea. Hautatze- eta jarraipen-batzorde bat eratuko da horretarako, Enpleguaren eta Garapen Ekonomiko Iraunkorraren Saileko zuzendariak, Enpresen Zerbitzuko buruak eta Merkataritza Zerbitzuko buruak osatua, zeina arduratuko baita aurkeztutako eskabideak aztertu eta ebaluatzeaz, Merkataritza Zerbitzuko teknikariek txostena egin ondoren.

Norgehiagoka baliatuko da laguntzak emateko prozedura gisa, eta, hortaz, aurkezten diren proiektuen arteko alderaketa egingo da.

Enpleguaren eta Garapen Ekonomiko Iraunkorraren Saileko zinegotzi ordezkariaren ebazpenaren bidez eman edo ukatuko dira laguntzak, hautatze- eta jarraipen-batzordeak proposamena aurkeztu ondoren.

9. oinarria. Ebazteko eta jakinarazteko epea

Gehenez sei hilabeteko epean ebatziko da prozedura, deialdia ALHAOn argitaratzen dene-tik. Epe hori berariazko ebazpenik eman gabe igaroz gero, dirulaguntza eskuratzeko eskabidea ezetsizat joko da.

ALHAOren eta Gasteizko Udalaren iragarki taularen bidez egingo dira dirulaguntzak emateko edo ukatzeko ebazpenaren jakinarazpenak, betiere Datu pertsonalak babesteari eta eskubide digitalak bermatzeari buruzko abenduaren 5eko 3/2018 Lege Organikoari jarraituz.

Dirulaguntzak emateko nahiz ezesteko erabakiak administrazio-bidea agortuko du, eta horren kontra administrazioarekiko auzi-errekurtsoa aurkeztu ahal izango da zuzenean Gasteizko Administrazioarekiko Auzietarako Epaitegian, bi hilabeteko epean, ALHAOn argitaratzen den egunaren biharamunetik, edo, aukeran, berraztertze errekurtsoa, erabakia hartu duen organoari zuzendua, hilabeteko epean, ALHAOn argitaratzen den egunaren biharamunetik; horren berriazko nahiz ustezko ebazpenaren kontra, berriz, bi hilabeteko epean aurkeztu ahal izango da administrazioarekiko auzi-errekurtsoa, Gasteizko Administrazioarekiko Auzietarako Epaitegian, errekurtsoa ezesten duen ebazpenaren berri jasotzen den egunaren biharamunetik, edo, ebazpena ustezkoa bada, sei hilabeteko epean, ustezko ebazpen hori gertatzen den egunaren biharamunetik.

10. oinarria. Balioespen-irizpideak

1. Diruz lagundu daitekeen inbertsioaren zenbatekoa: 15 puntu arte.

– Diruz lagundu daitekeen inbertsioa (jardueraren metro koadro erabilgarri bakoitzeko) 120,00 eurotik 250,00 eurora bitartekoa bada: 0 puntu.

– Diruz lagundu daitekeen inbertsioa (jardueraren metro koadro erabilgarri bakoitzeko) 251,00 eurotik 350,00 eurora bitartekoa bada: 5 puntu.

– Diruz lagundu daitekeen inbertsioa (jardueraren metro koadro erabilgarri bakoitzeko) 351,00 eurotik gorakoa bada: 15 puntu.

2. II. eranskinean zehazten diren auzoetan kokatutako inbertsio-proiektua (Alde Zaharra, Koroatzea, Angloa, Pilar, Zabalgunea eta Lovaina): 30 puntu.

3. Enpresa eskatzailearen antzintasuna (Ekonomia Jardueren gaineko Zergako datuen arabera): 25 puntu arte.

– 10 urtetik gorako antzintasuna: 15 puntu.

– 20 urtetik gorako antzintasuna: 25 puntu.

Oro har, enpresa eskatzaileak diruz lagun daitekeen jarduera ekonomiko bera gauzatzen diru-laguntzaren xedea den lokalean etenik gabe emandako denbora baloratuko da antzintasun gisa.

Enpresa eskualdatu bada, lehenago zegoen enpresaren antzintasuna kontuan hartu ahal izango da, baldin eta eskualdatzea behar bezala justifikatzen bada eta hasierako enpresaren jarduerari eutsi bazaio.

Jarduera Gasteizen kokatutako lokal batetik beste batera aldatu bada, enpresa edo pertsona eskatzaileak Ekonomia Jardueren gaineko Zergan (hasierako lokalean) duen antzintasuna hartu ahal izango da kontuan, baldin eta jarduerak etenik izan ez badu.

Enpresa eskatzailearen forma juridikoa aldatu bada, hasierako enpresaren antzintasuna kontuan hartu ahal izango da, baldin eta enpresa edo pertsona eskatzaileak gutxienez ehuneko 33,3ko partaidetza egiaztatzen badu enpresa batean nahiz bestean.

4. 10 langile baino gutxiago dituzten enpresak (TC2 agiriaren arabera): 10 puntu arte.

– 5 langile baino gutxiago: 10 puntu.

– 5 eta 9 langile artean: 5 puntu.

5. Merkataritza-sozietateen partaidetzarik ez duten enpresak (eratzeko eskrituren nahiz geroko aldakuntza-eskrituren arabera): 5 puntu.

6. Bai Euskarari edo Bikain ziurtagiria dutela egiaztatzen duten enpresak: 5 puntu.
7. Irisgarritasunaren hobekuntzak (proiektu teknikoaren edo txostenaren arabera): 5 puntu.
8. Aurkeztutako txostenaren kalitatea: 5 puntu arte.
- Enpresaren, jardueraren eta merkataritza-lokalaren deskribapena (kokapena, banaketa...): 1 puntu arte.
 - Egingako inbertsio edo berrikuntzen deskribapen kualitatibo eta kuantitatibo: 3 puntu arte.
- Azalpen-taula hau proposatzen da eredu gisa:

Zenbakia	Fakturaren data	Faktura zenbakia	Hornitzailea	Zenbatekoa (BEZik gabe)	Inbertsioaren deskribapena	Ordaintzeko aurreikusitako data eta modua

- Egingako esku-hartzearen aurreko eta ondorengo egoeren argazkiak: 1 puntu.

11. oinarria. Proiektuak balioestea eta dirulaguntza kalkulatzeko

Aurkeztutako proiektuen balioespina egingo da, 10. oinarrian adierazitako irizpideen arabera.

Guztira 100 puntu jasotzen duten proiektuek diruz lagun daitekeen inbertsioaren ehuneko 40ra arteko dirulaguntza lortu ahal izango dute. Guztira 0 puntu lortzen dutenek, berriz, ehuneko 25era arteko dirulaguntza lortu ahal izango dute. Puntuaziorik handienaren eta gutxienekoaren arteko gainerako proiektuei proportzio lineala aplikatuko zaie dirulaguntzaren ehunekoa kalkulatzeko: hala, balorazioan lortutako puntu bakoitzeko ehuneko 0,15 handituko da dirulaguntza.

Enpresa bakoitzari dagokion gehieneko laguntza kalkulatzeko, proiektuaren kokalekua aintzat hartuko da. Hain zuzen ere, hauek izango dira dirulaguntzaren gehieneko kopuruak:

- 180,00 euro jarduerarako azalera erabilgarriko metro koadro bakoitzeko, auzo hauetan dauden proiektuen kasuan: Alde Zaharra, Koroatzea, Angloa, Pilar, Zabalgunea eta Lovaina (II. eranskina).

Dirulaguntza ezingo da izan, inolaz ere, 20.000,00 eurotik gorakoa.

- 150,00 euro jarduerarako azalera erabilgarriko metro koadro bakoitzeko, II. eranskinean zerrendatutako auzoetan ez dauden proiektuen kasuan. Dirulaguntza ezin izango da izan, inolaz ere, 16.000,00 eurotik gorakoa.

Dirulaguntza jasotzen duen jardueraren azalera erabilgarria deialdi honetako 4. oinarrian xedatutakoaren arabera zehaztuko da.

10. oinarrian adierazitako irizpideei jarraituz balioestean guztira lortu dituzten puntuazioen arabera ordenatuko dira dirulaguntza jaso dezaketzen proiektuak.

Guztira lortutako puntuazioaren arabera ezartzen den hurrenkera horri jarraituz emango dira dirulaguntzak, harik eta erabilgarri dagoen aurrekontu-kreditua agortu arte. Berdinketa gertatuz gero, eta puntuazio bera duten eskabide guztiei erantzuteko aski aurrekontu-krediturik ez badago, 10. oinarriko 2. atalean lortutako puntuazioa hartuko da aintzat bata edo bestea lehenesteko (II. eranskinean jasota dauden auzoetan kokatutako inbertsio-proiektua). Berdinketak jarraituz gero, 10. oinarriko 3. atalean (enpresa eskatzailearen antzinatasuna) lortutako

puntuazioa hartuko da aintzat. Azkenik, berdinketak jarraituz gero, lehenago aurkeztutako eskabideari emango zaio lehentasuna, eskabideari Gasteizko Udalaren Erregistroan sarrera noiz eman zaion kontuan izanik.

Baldin eta geratzen den saldoa ez bada aski baliagarri dagoen kreditua agortzen duen dirulaguntza ordaintzeko, geratzen den kreditua ordainduko zaio horri.

12. oinarria. Ordaintzeko modua

Dena batera ordainduko da laguntza, deialdia ebatzi ondoren, eta 15. oinarrian adierazitako moduan justifikatu ondoren.

13. oinarria. Pertsona edo enpresa onuradunen betebeharrak

Laguntza jasotzen duten enpresa edo pertsonak betebeharrak hauek izango dituzte:

1. Udalaren egiaztatze-ekintzen mende jartzea, baita bertako Kontu-hartzaitza Nagusiari dagozkion finantza-kontrolerako ekintzen eta Herri Kontuen Euskal Epaitegiaren arauetan jasotako mende ere.

2. Udal-laguntza honetarako aurkeztutako gastu beretarako bestelako dirulaguntza edo laguntzarik jasoz gero, Udalari jakinaraztea.

3. Dirulaguntza emateko orduan kontuan izandako edozein zirkunstantzia objektibo nahiz subjektibo aldatuz gero, Udalari jakinaraztea.

4. Laguntza eskabidea ulertu eta ebaluatzeko beharrezkotzat jotzen den informazio eta agiri osagarri oro Enpleguaren eta Garapen Ekonomiko Iraunkorraren Sailaren eskura jartzea.

5. Dirulaguntza eman ondoren, norako eman den, establezimendu horretan bideratzea jarduera ekonomikoa gutxienez bi urtez. Adierazitako epe hori igaro aurretik ixten bada establezimendua, enpresa onuradunak jakinarazi egin beharko dio Udalari, eta emandako dirulaguntzaren zati bat itzuli, jarduera bertan behera geratzen den egunetik bi urteko epe hori (dirulaguntza eman zen egunetik) betetzeko falta den denboraren proportzio berean. Salbuespen gisa, ez da eskatuko jaso den dirulaguntza itzultzeko, eman zenetik bi urte igaro ez badira ere, jabeak gaixotasun larria duelako edo hil egin delako ixten bada negozioa.

Jarduera Gasteizko udal-mugartean kokatutako beste lokal batera aldatzen bada, baloratu egingo da jardueraren lokal berrian diruz lagundutako inbertsioei eusten zaien, eta jarduera lekuz aldatzen den egunean bi urteko iraunaldia osatzeko falta den denbora-tartea (dirulaguntza eman zen egunetik) kontuan hartuko da. Irizpide horiek oinarritzat harturik, enpresa onuradunak itzuli beharko duen dirulaguntzaren zati proportzionala kalkulatu da.

14. oinarria. Bestelako laguntza eta dirulaguntzekiko bateraezintasuna

Programa honetan aurreikusten diren laguntzak ezingo zaizkio gehitu gastu beretarako bestelako laguntzei.

15. oinarria. Nahitaezko agiriak

Agiri hauek erantsi beharko zaizkie dirulaguntza eskabideei:

- Eskabide-orria eta zinpeko aitorpena (I. eranskina).
- Pertsona fisikoen kasuan: nortasun-agiriaren kopia.
- Pertsona juridikoen kasuan: IFZ-ren kopia.

Enpresaren eratze-eskriturak nahiz enpresaren ordezkariari eta helbide sozialari eragiten dieten geroko aldakuntza-eskriturak.

Ordezkaritza-ahalmenak.

Ordezkaritza-ahalmena duen pertsonaren nortasun-agiria.

– Soldatapeko langilerik ez badu, azken hilabeteko autonomo ordainketaren ordainagiria eta enpresaburu gisa izena emanda ez egotearen egiaztatzea.

– Soldatapeko langilerik badu: TC2 edo azken hilabeteko langileen zerrenda izenduna.

– Azalpen-txostena, non, gutxienez ere, informazio hau bildu beharko baita:

Enpresaren eta lokalean egiten den enpresa-jardueraren deskribapena.

Merkataritza-lokalaren ezaugarriak (kokalekua, banaketa eta abar).

Merkataritza-lokalean egindako inbertsioen nahiz eraberritze-lanen deskribapen zehatza eta banaketa; adierazi behar da zer helburu duten, eta zer lotura duten negozioaren lehiakortasunarekin (eraberritu aurreko eta ondorengo argazkiak eransten badira, hori ere balioetsiko da, baita 10.9 oinarrian adierazten den ereduaren arabera fakturen laukia eranstea ere).

Lokalean irisgarritasun-hobekuntzak egin badira, haien deskribapen zehatza egin, eta argazkiak erantsi, adierazitako puntuazioaren arabera balioetsi ahal izateko.

– Establezimenduari dagokion jabetza-agiriaren edo alokairu-kontratuaren kopia. Lokala alokatzeko kontratuan esanbidez adierazten ez bada, eraberritze-obrak egiteko errentatzaileak emandako baimena.

– Halakorik izanez gero, kontratatutako proiektu teknikoaren kopia, non lokalaren azalaren banaketa islatzen baita.

– Bai Euskarari ziurtagiriaren kopia edo Bikain ziurtagiria lortu izana argitaratzen den EHAA-ren orriaren kopia, halakorik izanez gero.

– Fakturen kopiak.

– Fakturen ordainketaren egiaztargiak: ez da dirutan egindako ordainketen egiaztargirik onartuko (ezta enpresa hornitzaileen kobrantza-egiaztargirik ere), salbu eta hornitzaile beraren faktura edo faktura multzoa guztira 2.500,00 eurotik beherakoa bada, eta haietan ordaintzeko beste modurik adierazten ez bada.

Gainerako kasuetan, ordainketaren banku-egiaztargiak aurkeztu beharko dira. Ez da onartuko banku-egiaztargirik, baldin eta nahikoa daturik jasotzen ez badu faktura enpresa eskatzaileak hornitzaileari ordaindu diola argi eta garbi geratzeko. Era berean, ez dira egiaztargiri gisa onartuko internet bidez eskuratutakoak, baldin eta banku-erakundeak balioztatuta edo zigilatuta ez badaude.

Bi hilabeteko epea egongo da fakturen ordainketa-egiaztargiak aurkezteko, eskabideak aurkezteko epea amaitzen den egunetik.

Gasteizko Udalarekiko zerga-betebeharrak betetzeari dagokionean, ofizios begiratu da pertsona edo enpresa eskatzailea egunean dagoen, baita arauko obra-baimenak dituen ere.

Eskabidea aurkezteak Gasteizko Udalarri zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak betetzeari buruzko ziurtagiriak zuzenean eskatzeko baimena ematea dakar berekin (I. eranskina). Hala ere, enpresa eskatzaileak berariaz ukatu ahal izango du baimen hori. Horrela bada, Arabako Foru Aldundiarekiko eta Gizarte Segurantzaren Diruzaintza Nagusiarekiko betebeharrak ordainduak dituela egiaztatzen duen ziurtagiria aurkeztu beharko du.

16. oinarria. Akatsak zuzentzea

Dirulaguntza-eskabideari ez bazaizkio deialdian galdatutako agiriak eransten, eskatzaileei hamar eguneko epea emango zaie falta zaizkien agiriak aurkezteko, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 68. artikulua ildotik, eta halaber ohartaraziko hala egin ezean eskabidea bertan behera utzitzat joko dela.

17. oinarria. Datu pertsonalen tratamendua

Deialdi hau dela-eta egiten diren jarduketak gauzatzean, une oro beteko da datu pertsonalen babesari buruz indarrean dagoen legerian xedatutakoa.

Gasteizen, 2019ko apirilaren 2an


Administrazio Zerbitzuaren burua
LUCIO CRUCELEGUI JÁUREGUI

I. eranskina: laguntza-eskabidea eta zinpeko aitortpena

<https://sedeelectronica.vitoria-gasteiz.org/wb021/http/contenidosEstaticos/adjuntos/es/00/33/60033.pdf>

**II. ERANSKINA: ANGLOA, ALDE ZAHARRA, KOROATZEA, LOVAINA, PILAR
ETA ZABALGUNEA.**

Auzo hauetako kaleen plano orientagarria: Angloa, Alde Zaharra, Koroatzea, Lovaina, Pilar eta Zabalgunea.



Aipatutako auzo horietako kaleak eta zenbakiak esteka honetan <http://www.vitoria-gasteiz.org/wd004/docs/es/tramos.xls> kontsulta daiteke zehaztasun handiagoz: